



Jainkoak sortu duen guztiaren artean, gu gara garrantzitsuenak. Begiak eman dizkigu, ahoa, belarriak, sudurra, eskuak, hankak... baina ondo erabiltzeko.

Orain, guri dagokigu Jainkoak sortu zuena bultzatzea, mundu atsegina lortzeko, denok bakean bizitzeko, anai-arreba gisa, elkarri lagunduz eta daukaguna partekatuz...

51. orrialdea: dauden begirada guztien artean, egokiena iruditzen zaiena marraz dezatela.

56. orrialdea: bunbuiloetan idatzi dutena irakur dezatela.

64. orrialdea: «Zein dira gehien gustatzen zaizkizuen usainak? Eta gutxien gustatzen zaizkizuenak? Eta zein dira gehien gustatzen zaizkizuen zaporeak? Eta gutxien gustatzen zaizkizuenak».

Aipa ditzagun, hurrekin batera, gaizki dauden gauzak:

- elkarri jotzea,
- haserretzea,
- gezurra esatea,
- hitz itsusiak esatea (palabrotak),
- paperak lurrera botatzea...


Eta, orain, aipa ditzagun egokiak edo onak direnak:

- natura zaintzea,
- laguntzea,
- ez haserretzea,
- borrokarik ez egitea...

Beste orrian (3) datorren dinamika jarraituko dugu (lehen bizi 2 orrian dauden marrazkiak moztuko ditugu eta poltsa batean sartu).

Bukatzeko eta elkarrekin errezatu ondoren gurutzearen seinalea egingo dugu (ondoren margotuko egingo dugu).

Irtetzerazkoan bai gurutzearen seinalea eta ere aita gurearen komika emango dizkiogu.





Mahai baten inguruan, aulkiak ipiniko ditugu, biribilean. Mahaiaren gainean kandela bat, oraindik piztu gabe, eta Biblia jarriko dugu.

Sartu, eseri eta isilean egongo gara; eta Jauna gure anean dagoela adieraziko diegu, bai oraintxe piztuko dugun argian, bai Biblian ere. Liburu horretan Jaunaren Hitza baitago jasota.

Eta zergatik emango dizkiogu eskerrak? Bada, guk guztiok dauzkagun bost gauzengatik... Zentzumenengatik, hain zuzen ere. Aipa ditzatela banan-banan.

Bitartean, poltsan dauzkagun papertxoak banatuko ditugu (begiak, belarriak, ahoa, sudurra eta eskuak daude papen horietan marraztuta). Bakoitzak papertxo bat hartu, begiratu eta identifikatu egingo du. Orain, istorio bat kontatuko dizuet. Istorio horretan, begiak, belarriak, ahoa, sudurra eta eskua aipatuko ditut. Eskuetan daukazuen marrazkiaren izena entzutean, zuen aulkitik altxa eta beste aulki batean eseri beharko duzue. (Egin ezazue proba bat.)

Bazen behin sudur kuxkuxero bat. Leku guztietan sartzea gustatzen zitzaion; dena usaintzea. Behin batean, hitz egiten eta galletak jaten ari zen aho batekin egin zuen topo.

Ahoa itxi eta ireki egiten zen, aho guztiak bezala. Azken galleta jan zuenean, zera galdetu zion sudurrari: "Aizu, sudur, zer usaintzen ari zara?".

Baina sudurrak ezin zuen ahoak esaten ziona entzun. Handik hurbil, belarriak zebiltzan, dena entzun nahian. Belarriak sudurrak bezain kuxkuxeroak dira. Baina ez belarriek, ez sudurrak, ezin izan zioten ahoak egindako galderari erantzun.

Aurreko eserlekuan begiak zeuden eserita, gertatzen zen guztiari begira. Denetarik ikusi zuten: sudurra usaintzen, belarriak entzuten, ahoa hitz egiten eta jaten... Eta, halako batean, eskuak ikusi zituzten, jolasean. Begiak zabal-zabalik gelditu ziren eskuek arbelean biribil handi bat marraztu zutela ikustean, eta biribilaren erdian sudur bat.

Gero, aho bat marraztu zuten. Eta, ondoren, biribilaren albo bakoitzean, belarri bana. Eta begiak ere marraztu zituzten, polit-politak. Marrazkia amaituta zegoela uste zutenean, eskuek gorputza marraztu zuten, besoak eta eskuak ere bazeuzkana.

Belarriek ahoak esaten zuena entzuten zuten. Sudurrak galletak usaintzen zituen. Begiek eskuak ikusi zitzaizketen. Hain pozik zeuden guztiak, haien sortzaileari eskerrak ematen hasi zirela.

Eta orain, zera galdetuko dizuet nik: nork sortu dita horiek guztiak?

Eta nork sortu gaitu gu? **JAINKOAK.**

Emango al dizkiogu eskerrak Jainkoari?, egin daigun otoitz...

***Aita Jauna: Gaur eskerrak eman nahi dizkizut bizitzagaitik.***

***Nire gurasoek eman zidaten eta zuk ere egunero ematen didazu,***

***Eskerrak nire eskuengatik, lagun baitezaket eta lan egin***


***Eskerrak begiengatik, beraiekin sortutako guztia ikus dezaket.***

***Eskerrak usaimenangatik, belardietan belar usaintsuak daudenean beraietaz dusfrutatu baitezaket.***

***Eskerrak dastamengatik jatera noan bakoitzean***






***Eta eskerrak fedeagatik, nor zaren jakin ahalizan dudalako beran esker.***

***Eskerrak Jauna eman dizkidazun gauza***





# CURUPZEARREN SEIMALEA

 <p>Aitarren</p>	 <p>semearen</p>	 <p>eta Espiritu</p>	 <p>Kuaren semeen</p>	 <p>AMEN</p>
--	---	--	---	--

